

**H** LH6



*Izen-deiturak*

---

*Ikastetxea*

---

*Taldea*

---

*Herria*

---

*Data*

---

***Irakurmena***

***LHko 6. maila***

**2015-2016**

# Jarraibideak

Proba honetan testu batzuk irakurriko dituzu eta irakurri duzunari buruzko galdera batzuei erantzungo diezu.

Galderak mota batekoak baino gehiagokoak dira. Galderetako batzuek lau erantzun dituzte aukeran, eta haietan zuzena dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Adibidez:

**Zenbat biztanle ditu Iruñeak?**

- A Bartzelonak bezainbat.
- B 200.000, gutxi gorabehera.
- C Milioi bat.
- D Zenbait milioi.

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

**Zenbat biztanle ditu Iruñeak?**

- A Bartzelonak bezainbat.
- B 200.000, gutxi gorabehera.
- C Milioi bat.
- D Zenbait milioi.

Beste galdera batzuetan, aldiz, eskatuko dizute (E) egia edo (G) gezurra erantzutea edo erantzuna idaztea puntuak dituen gunean:

**Zein da Iruñeko tokirik ezagunena?**

.....



**Proba hau egiteko 60 minutu dituzu.**

# Hiri baratzeak: osasuna eta ekonomia goitik behera

Landatze sistema bertikalei esker, frutak, berdurak eta usain-belarrak jar ditzakegu etxean.

**L**eihoa ireki, norberak landatutako tomatea hartu eta eguerdiko entsaladan jan. Horrela esanda, bitxi samarra irudituko zaio norbaiti, eta izugarritzko luxua besteren bati, baina, gaur egun, edonoren esku dago hori egitea hiri baratzeei esker. Gainera, nornahik egiteko modukoa ez ezik, nork bere frutak eta berdurak ekoizteko modu ekologikoa eta merkeagoa ere bada. Horiei esker, elikagai fresko eta osasungarriak lortzen dira, eta entretenigarri hezigarria ere bada, naturarekin harremanetan jartzen gaituena eta haren onurak erakusten dizkiguna. Horrelako baratze bat jartzeko, edozein terrazak, hormak edo leihok balio du: ohiko lur eremu horizontalean landatu beharrean, bertikalean egiten da, goitik behera. Etxeak kanpoaldera duen edozein espaziori probetxua ateratzea da asmoa, edo barnealdean duenari ere bai, eta gorantz hazten diren espeziek landatzea edo, behintzat, arazo berezirik gabe hazten direnak, guk askorik zaindu gabe ere. Horrela, terraza batean, baranda batean edo horma batean jardinerak edo loreontziak jarrita, edo leiho baten koskan



bestela, eta pixkatxo bat zainduz gero, lan handirik gabe eskuratuko ditugu gorantz hazten diren landare eta barazkiak; adibidez, haltza (landare apaingarria da), melisa (sendabelarra), letxuga, tomatea, luzokerra...

## Nola egin

Era asko daude hiri baratze bertikal bat jartzeko. Ikusi egin beharko da zer-nolako lekua dugun, zer landatu nahi dugun eta zenbateko aurrekontua dugun.

Aukerarik merkeena izaten da eskura dauden elementuak erabiliz egitea baratze bertikal bat. Horretarako, adibidez, **plastikozko botila erabiliak berrerabili** daitezke (hori izaten da aukerarik ohikoena eta merkeena, eta ingurua garbiago egoteko ere balio du), edo **zurezko paletak** ere bai, kaxak-eta pilatzeko erabiltzen direnak (moztu egin daitezke, eta baratzeak izango duen tokiaren eta neurriaren arabera pilatu). Zenbait blogetan oso ongi azaltzen dute nola atera probetxua material horiei (hor dago, adibidez, Ecoexperimentos izenekoa, Claudia Barriga eta Pablo Sepúlveda ingeniari agronomoek sortua), eta argibideak ematen dituzten bideoak ere

badira sarean, plastikozko botilekin eta paletekin baratzea nola egin daitekeen erakusten dutenak.

Horrekin batera, gidak edo zurkaitzak daramatzaten loreontziak edo jardinerak ere erabiltzen dira modu bertikalean landatzeko. Gorantz hazten diren espezieak landatzen dira, eta zurkaitz edo gida bat jartzen zaie gora egiten laguntzeko (ziri bat izan daiteke, kanabera bat...).

**Etxean landatzeko edozein balkoi, horma edo leihok balio dezake, baldin eta landareak gora egiteko modua badu**



Modulukako lorategi bertikalak berariaz sortu dira landaketa mota hori egiteko. Erraz instalatzen dira, eta modulu txikiak jarriz egin daiteke; gero, beste modulu batzuk gehitu ditzakegu eta ekoizpena handitu edo beste espezie batzuk landatu. Diru askorik gastatu gabe (45 eta 75 euro artean), hainbat motatakoak aurki daitezke, norberak daukan lekuari eta estetikari egokitzen zaizkionak.

Elikagai osasungarriak merke lortzeko modu bat izateaz gain, hiri baratze bertikalak ohiko baratze batek baino mantentze lan gutxiago eskatzen du: ez txikiagoa delako bakarrik, baita espazioari probetxu gehiago ateratzen diolako eta aireztatuagoa dagoelako ere; horrek, izan ere, zaildu egiten du belar txarrak eta parasitoak sartzea.

[www.consumer.es](http://www.consumer.es)  
(Egokitua)

**1. Zer da hiri baratze bat?**

.....

.....

.....

**2. Testuaren arabera, nork izan dezake baratze bat etxean?**

- A. Luxuzko etxea duenak
- B. Terraza handia duenak
- C. Pisu altu batean bizi denak
- D. Edonork

**3. Etxeko zein tokitan jar daiteke baratzea?**

- A. Edozein terraza, horma, baranda edo leihotan.
- B. Terrazatan soilik, toki gehiago dagoelako.
- C. Etxeak kanpoaldera duen edozein espaziotan, nahitaez.
- D. Etxeak barnealdera duen edozein espaziotan, bereziki.

**4. Zein da desberdintasunik nabarmenena ohiko lur eremuen eta hiri baratzeen artean?**

- A. Ohiko lur eremuetan ez da botilarik erabiltzen.
- B. Ohiko baratzeak ekologikoagoak dira.
- C. Batzuk handiak eta besteak txikiak.
- D. Batean landaketa horizontala da eta bestean bertikala.

**5. Zein landare dira egokienak etxean landatzeko?**

.....

.....

.....

6. Aipa itzazu hiri baratzea jartzeko erabil ditzakegun lau elementu edo baliabide:

.....  
.....  
.....  
.....

7. Zer dira paletak?

- A. Landareak landatzeko erabiltzen diren plastikozko kutxak.
- B. Landareei gora egiten laguntzeko makiltxoak.
- C. Landareak landatzeko erabiltzen diren plastikozko botilak.
- D. Kaxak pilatzeko erabiltzen diren zurezko plataformak.

8. Zer sortu dute Claudia Barrigak eta Pablo Sepulvedak?

.....  
.....  
.....

9. Testuaren arabera “argibideak ematen dituzten bideoak ere badira sarean”. Zer esan nahi da horrekin?

- A. Sare bat beharrezkoa dela landatze sistema bertikal bat egiteko.
- B. Bideoz landareen garapena azaldu daitekeela.
- C. Interneten baratze bertikalen gaineko bideoak topa ditzakegula.
- D. Bideoek informazioa konpartitzeko balio dutela.

**10. Zertarako erabiltzen dira zurkaitzak?**

- A. Landareek argia errazago topa dezaten.
- B. Loreontziak apaintzeko.
- C. Mantentze lan gutxiago izateko.
- D. Landareei gora egiten laguntzeko.

**11. Zergatik eskatzen du mantentze lan gutxiago hiri baratzeak?**

- A. Parasito eta belar txarrak sartzea zailago delako.
- B. Landatzeko edozein bakoik, hormak edo leihok balio dezakeelako.
- C. Arazo berezirik gabe hazten diren landareak landatzen direlako.
- D. Altuago egotean eguzkiaren argia hobeki aprobetxatzen duelako.

**12. Non aurkitu dezakegu testu hau, batez ere?**

- A. Zientzia aldizkari batean
- B. Interpretazio zentro bateko triptiko batean
- C. Kontsumitzaileentzako aldizkari batean
- D. Haur Hezkuntzako testu liburu batean



## ALMADIAREN EGUNA 2015 / AGURRA

**“Nire lurretik, askotan bezala, ibaian behera abiatu nintzen laneko jantziekin, lau gauza jantzitegian eta familia bihotzean”.** Horrelakoa zen almadiazainaren bizimodua.



Piriniotik Erriberara, zorte handiagoz edo txikiagoz, baina beti apal. Almadiak Milagrorra iristen zirenean, beti maitasun berezia sumatzen zuten. Izan ere, ez da kasualitatea herri horrek bere kale bat izendatzeko lanbide horri aipamena egitea eta “Almadiazainen kalea” deitzea.



Orain almadiazainok Milagrorri diogun maitasuna adierazteko, etxeokak bagina bezala hartu gintuztelako, eta gure aurrekoen esker onari izena emateko, Milagroko ostatua omenduko dugu Urrezko Almadia emanaz.



Azkenik, adierazi nahi dizuegu denak ongi etorriak zaretela eta besoak zabalik zuen zain gaudela; lau gauza jantzitegian eta familia bihotzean.



<http://www.almadiasdenavarra.com/saludo.php?lang=eus>  
(Egokitua)



**13. Zer da almadia bat?**

- A. Almadiazainak biltzeko leku bat
- B. Aspaldiko lanbide bat
- C. Zuhaitz enborrez eginiko plataforma flotatzailea
- D. Almadiaren eguneko ikuskizuna

**14. Zer esan nahi du “lau gauza jantzitegian eta familia bihotzean” esamoldeak?**

- A. Jantzi askorekin eta familia gogoratuz abiatzen zirela almadiazainak.
- B. Familiak emandako jantziak eramaten zituztela almadiazainek.
- C. Almadiazainen lanbideak familiatik urruntzea eskatzen zuela.
- D. Oinarrizko jantziak hartuta eta familia gogoratuz abiatzen zirela almadiazainak.

**15. Zer adierazten dute komatxoek ondoko esaldian?**

**“Nire lurretik, askotan bezala, ibaian behera abiatu nintzen laneko jantziekin, lau gauza jantzitegian eta familia bihotzean”.**

- A. Norbaiten hitzak direla.
- B. Esaldia almadiaren eguneko leloa dela.
- C. Esaldia Agurraren sarrera dela.
- D. Esaldia oso garrantzitsua dela.

**16. Nola deritze almadia gainean doazen pertsonei?**

.....

**17. Nori zuzendutako testua dela pentsatzen duzu?**

- A. Aintzinako lanbideak gustuko dituzten pertsonei.
- B. Almadiazainen familiei eta lagunei.
- C. Almadiaren egunera joateko asmoa duten guztiei.
- D. Urrezko Almadia jasoko duten pertsonei.

**18. Zertarako balio dute argazkiek testu honetan?**

- A. Orrialdea osatzeko, testua motza delako.
- B. Almadiazainen lanbideari buruzko informazio bisuala emateko.
- C. Zonaldeko paisaiaren gaineko informazio zehatza emateko.
- D. Almadiazainen janzkera erakusteko.

# Legamia, ogiaren osagai magikoa



Janarien eta edarien fabrika askok jai lukete onddorik ez balego! Badakizu? Ardoa, sagardoa edo garagardoa egiteko, ezinbestekoak dira onddoak: Onddoek sortzen dute edari horien alkohola! Edarigintzan ez ezik, beste arlo batzuetan ere erabiltzen dituzte onddoak; okintzan, esate baterako. Ikus dezagun zer gertatzen den! Egin ditzagun bi ogi, bati onddoa jarriko diogu, eta besteari ez.

## EGIN BEHARREKOA:

1. Lehenik eta behin, labea berotzen jarri, 250 gradutan.
2. Ontzi sakon batean, legamia uretan desegin, eta gatza gehitu. Ondoren, irina pixkanaka-pixkanaka bota, eta etengabe oratu, orea ontzitik arazorik gabe berezi arte. Hamar minutu eman behar dituzue orea oratzen; zenbat eta denbora gehiago egon, orduan eta goxoagoa izango da ogia.
3. Ogiari forma emateko garaia da. Forma emandakoan, oihalezko zapi batean bildu, eta, ahal izanez gero, berogailu baten ondoan jarri. Onddoek zer lan egiten duten ikusiko duzue ordu erdi edo hiru ordu laurden pasatutakoan. Legamiadun oreak hasieran zuen tamainaren bikoitza izango du!
4. Orain, labean sartu behar dituzue bi oreak. Horretarako, labearen tenperatura 180 gradura jaitsi, eta, sartu aurretik, oreei bizpahiru mozketa egin (bestela, labean daudela lehertu egingo dira).
5. 45 minutu inguru utzi behar dituzue labean. Gorantz dagoen aldea txigortzen denean, buelta eman, azpiko aldea ere txigortzeko.

## OSAGAIK:

- 750 gramo irin
- Baso bat ur epel
- 40 gramo ogia egiteko legamia (okindegi batean eskatu beharko duzue legamia berezi hori)
- Gatz pixka bat.

Noski, aipatutakoak legamiadun ogiarentzako osagaiak dira. Bestearentzat, beste hainbeste beharko duzue, legamia izan ezik.



Ikusiko zenuten onddoa zuen ogia bestea baino handiagoa, harroagoa, eta mamitsuagoa dela. Horra gure onddoen lan garrantzitsua!

<http://www.zernola.net/>

**19. Zer da legamia?**

- A. Onddo bat
- B. Ore bat
- C. Garagardo mota bat
- D. Barazki bat

**20. Ogia egiteko oreak labean egon behar du. Ze tenperaturatan?**

- A. 40 gradutan
- B. 180 gradutan
- C. 250 gradutan
- D. Temperatura altuan, ez da inporta zehazki zenbat gradutan

**21. Zergatik dituzte ogiek goialdean mozketak?**

- A. Bestela labean lehertuko liratekeelako
- B. Politagoak izateko
- C. Legamia barrutik egosteko
- D. Okindegietan horrela egiten dutelako

**22. Zer desberdintasun dago legamiadun ogia eta legamia gabekoaren artean?**


- A. Legamia gabeko ogia askoz goxoagoa da.
- B. Legamiadun ogia ez da labean lehertzen.
- C. Legamiadun ogiak tamaina handiagoa du.
- D. Ez dago inolako desberdintasunik.

**23. Zein testu mota da hau?**

- A. Azalpen testua
- B. Argibide edo instrukzio testua
- C. Narrazioa
- D. Argudio testua

**24. Lotu lerro batez zifra bakoitza dagokion magnitudearekin.**

750	PISUA
40	TENPERATURA
45	DENBORA
180	



Informazio gehiago:  
 Igantzi, NAFARROA  
 T. +34 948 928 922  
 www.irrisarriland.eu  
 e-maila: info@irrisarriland.es



Nola etorri:  
 Edonon zaudela ere, bide kode honen bidez IrriSarri Landera (Igantzi, Nafarroa) iristeko biderik onena topatuko duzu. Segidan erreferentziatzko hainbat distantzia:

- Iruñea: 63 km
- Hendaia: 26 km
- Donostia: 35 km
- Miarritze: 50 km
- Gasteiz: 142 km
- Bilbo: 143 km



1. Tirolina Erraldoia
2. Pendulu jauzia
3. Tibetar zubia
4. Canopy Zirkuitua
5. BTT jaitsiera pistak
6. Bizikleta ibilaldiak egiteko zirkuituak
7. Abentura ibilbidea
8. Interpretazio ibilbidea
9. Dirt Park-a
10. Gaztelu eta haurrentzako zirkuitua
11. Jolastokia (Kiroldegia)
12. Aterpetxea /Harrera bulegoa
13. Aparkalekua
14. Baratze ekologikoa
15. Apartamentudun hotela
16. Bordak
17. Interpretazio zentroa
18. Heliportua
19. Hipika
20. Donostia
21. Miarritze, Frantzia
22. Pirinioak

**25. Zein da IrriSarri Land parkearen helburu nagusia?**

- A. Kirola egitea
- B. Tirolinan jaisten ikastea
- C. Dibertsioa
- D. Igantzi ezagutzea

**26. Non dago IrriSarri Land, Nafarroako Iparraldean, Hegoaldean, Mendebaldean ala Ekialdean?**

.....

.....

.....

**27. Iruñetik abiatuta, 70 km/h batez besteko abiaduran, zenbat denbora beharko zenuke gutxi gorabehera parkera iristeko?**

- A. Ordu erdi
- B. Ordu bat
- C. 90 minutu
- D. Bi ordu

**28. Zergatik da nagusi kolore berdea eskuorri osoan?**

- A. Parkea naturan kokatuta dagoela adierazteko.
- B. Baxi basajauna berdea delako.
- C. Berdea kolore alaia eta polita delako.
- D. Itsasoaren urdinarekin kontrastea egiteko.

**29. Zertarako erabiltzen dira zenbakiak goiko irudian?**

- A. Zirkuitua antolatzeko
- B. Lekurik politenak adierazteko
- C. Toki ezberdinak planoan kokatzeko
- D. Ekintza kopurua zerrendatzeko

**30. Falta al da, zure ustez, garrantzizkoa izan daitekeen eta testuan agertzen ez den bestelako informaziorik?**

.....

.....

.....